

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TOKIKO TURISMO-INFORMAZIOAREN ETA - DOKUMENTAZIOAREN KUDEAKETA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0081		
Lanbide-arloa	OSTALARITZA ETA TURISMOA		
Lanbide-eremua	Turismoa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Turismo-informazioa.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Tokiko turismo-informazioko zerbitzuaren antolaketa	Iraupena	90
	Bisitariari informazioa eta arreta ematea	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1074_3: TURISMO-INFORMAZIOA KUDEATZEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Tokiko inguruari buruzko turismo-informazio interesgarria lortzeko aukera ematen duten iturriak eta metodoak aztertzea, lortutako informazioa ebaluatuz, hautatuz eta bezeroen beharretara egokituz, bezero-motaren arabera.

E1.1 Turismo-informazioko iturriak adierazgarrienak identifikatzea eta deskribatzea.

E1.2 Turismo-informazioko iturriak sailkatzea, haien fidagarritasunaren, aldizkakotasunaren, jarraitutasunaren eta lantze-mailaren arabera.

E1.3 Datuak biltzeko eta eguneratzeko metodoak deskribatzea eta aplikatzea.

E1.4 Informazio-tratamendurako metodoak deskribatzea eta aplikatzea, informazioa jaso behar duen publikoari egokitzeko.

E1.5 Dibulgaziozko turismo-argitalpenak eta haien produkzio-teknikak deskribatzea.

E1.6 Teknologia berriek helmugako turismo-informazioa hedatzeko ematen dituzten aukerak deskribatzea.

E1.7 Turismo-informazioko zentrozen artean eta sareen artean turismo-informazioa eskatzeko eta emateko formularioak egitea.

E1.8 Informazioa lortzeko zenbait egoera praktikotan, lortutako informazioa ebaluatzea eta hautatzea, eta bezero izan litezkeen beharretara egokitzea.

A2: Finkatutako tokiko inguruneetan, kultura-interesa duten ondasunei, espazio naturalei eta bestelako baliabide kultural eta naturalei buruzko informazioa biltzea, turismo-informazioko zerbitzuetako erabiltzaile izan litezkeenei helarazteko.

E1.2.1 Zona jakin batzuetako interes kultureko ondasunei eta ondare kultureko beste baliabide batzuei buruzko informazioa sakon aztertzen da eta objektiboki interpretatzen da.

E1.2.2 Zona jakin batzuetako naturaguneei eta ondare naturaleko beste baliabide batzuei buruzko informazioa sakon aztertzen da eta objektiboki interpretatzen da.

E1.2.3 Aldez aurretik aztertutako eta interpretatutako informazio horri dagozkion funtsezko datuak eta alderdiak memorizatu eta elkarrekin lotzen dira.

Edukiak

1. Turismo-informazioko iturriak

- Lortu eta prozesatu beharreko informazio-motak.
- Turismo-informazioko iturrien identifikazioa, balorazioa eta sailkapena.
- Turismo-informazioa erregistratzeko, artxibatze eta eguneratzeko teknikak.
- Turismo-informazioa aurkitzeko eta lortzeko sistemak eta baliabideak.
- Informazioa aztertzeko, kontrastatzeko eta artxibatze metodo logiak.
- Informazioaren euskarriak: papera, euskarri elektronikoa.
- Artxibatze sistemak: bankuak eta datu-baseak.
- Etengabe eguneratzeko metodologia: prozedurak eta kostuak.
- Turismo-informazioko zentroa, helmugaren informazio-iturri gisa.
- Informazio-zentrozen eta -sareen arteko informazio-trukea: feedbacka.
- Informazioaren zirkulazioa eta banaketa, informazio-zentzoren barruan eta helmugako beste informazio-sistema ez-formal batzuetan.
- Informatika eta informazioaren teknologiak, turismo-informazioko zentroetan:
 - Informazioa bilatzea, biltegiatzea eta hedatzea.

- Informazioa prozesatzea eta egokitzea, dauden euskarrietarako eta informazioa hedatzeko bideetarako: arreta pertsonala, telefono bidezkoa, webguneak —web 2.0—, mugikorretarako deskargak, autoinformazio-puntuak.

2. Tokiko inguruneko kultura- eta natura-ondarearen informazioa eta interpretazioa

- Turismo-helmugako baliabideak eta zerbitzuak aztertzea.
 - Dauden merkatu-segmentuen beharrak eta itzaropenak.
 - Merkatuari erantzuteko egin litezkeen turismo-helmugan segmentazioak.
- Ondarearen interpretazioaren printzipioak eta helburuak.
- Interpretazio-baliabideak, pertsonalak eta ez-pertsonalak.
 - Baliabide pertsonalak: bisita gidatuak
 - Baliabide ez-pertsonalak: argitalpenak, azalpen-materialak, erakusketak...
- Informazioa banatzeko euskarrietara eta bideetara egokitzea:
 - Arreta pertsonala, telefono bidezkoa eta elektronikoa.
 - Zentroko autoinformazio-puntuak.
 - Webguneak (estatikoak, web 2.0...)
 - Turismo-argitalpenak.
 - Informazio-teknologiek eskaintzen dituzten beste aukera batzuk.
- Hartzailen izango diren taldeen edo turisten arabera egokitzea informazioa.
 - Turismo-informazioa hainbat hizkuntzatarara itzultzea.
 - Informazioa merkatu-hobien arabera gaika antolatzea.
 - Informazioa eskura jartzea behar bereziak dituzten bezeroentzat.
- Informazioaren integrazioa eta elkarreragina.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0080: Tokiko turismo-informazioko zerbitzuaren antolaketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Tokiko turismoa sustatzea eta bisitaria informatzea